

# **XEHETASUN-AZTERKETA ELGOIBARKO (Gipuzkoa) OSASUN-ZENTRO BERRIRAKO**

**“1.A.3 –MERKATUA” AZPIEREMUA**



**HASIERAKO ONESPENA**

2025eko urria

SUSTATZAILEA:

**Osakidetzaren Azpiegituren Zuzendariorde**

ERREDAKTORE-TALDEA:



**ERDU - ESTUDIO DE RENOVACIÓN Y DESARROLLOS URBANOS**

Arkitekto hirigilea	Paula Amuchastegui Moreno
Abokatu hirigilea eta geografoa	Jesús Luis Sola Jiménez
Arkitekto teknikoa	Luis Sola Jiménez

# AURKIBIDEA

<b>A. MEMORIA .....</b>	<b>7</b>
<b>A.1 SARRERA.....</b>	<b>8</b>
<b>A.1.1 SUSTATZAILEA .....</b>	<b>8</b>
<b>A.1.2 ERREDAKTORE-TALDEA.....</b>	<b>8</b>
<b>A.1.3 APLIKAZIO-EREMUA.....</b>	<b>8</b>
<b>A.1.4 AURREKARIAK ETA XEDEA.....</b>	<b>8</b>
<b>A.1.5 INDARREAN DAGOEN LEGE-ESPARRUA .....</b>	<b>9</b>
A.1.5.1 Estatuko hirigintza-legeria.....	9
A.1.5.2 Erkidegoko hirigintza-legeria.....	9
A.1.5.3 Estatuko ingurumen-legeria .....	9
A.1.5.4 Erkidegoko ingurumen-legeria .....	9
A.1.5.5 Bestelako legeria (honakoei buruzkoa: lurraldea, ondarea, generoa, zarata.....)	9
A.1.5.6 Udal-plangintza .....	10
<b>A.1.6 DOKUMENTU HAU IDAZTEKO HIRIGINTZA-JUSTIFIKAZIOA .....</b>	<b>10</b>
A.1.6.1 Antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzeko edo egokitzeko beharraren edo komenigarritasunaren justifikazioa .....	10
A.1.6.2 Xehetasun-azterketaren edukia .....	10
<b>A.1.7 EDUKIA .....</b>	<b>11</b>
<b>A.1.8 IZAPIDETZEA .....</b>	<b>11</b>
<b>A.2 EREMUAREN HIRIGINTZA-ANALISIA .....</b>	<b>13</b>
<b>A.2.1 EREMUAREN DESKRIBAPENA .....</b>	<b>13</b>
<b>A.2.2 PARTZELAREN TITULARTASUNA.....</b>	<b>15</b>
<b>A.2.3 HIRIGINTZA-ARAUDIA .....</b>	<b>16</b>
<b>A.3 PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA.....</b>	<b>19</b>
<b>A.3.2 ZEHAZTAPENAK .....</b>	<b>20</b>
A.3.2.1 Lerrokadurak .....	20
A.3.2.2 Sarbide nagusiko sestra.....	20
A.3.2.3 Altuerak.....	20
A.3.2.4 Solairu-kopurua.....	20
A.3.2.5 Estalkia .....	20
A.3.2.6 Hegalkinak.....	21
A.3.2.7 Trataera estetikoa .....	21
A.3.2.8 Baoak.....	21
A.3.2.9 Materialak .....	21
A.3.2.10 Aireztapena .....	21
<b>A.4 IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA ...</b>	<b>22</b>
<b>A.5 SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNERAKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA .....</b>	<b>23</b>
<b>A.6 TELEKOMUNIKAZIOEI BURUZKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>24</b>
<b>B. INGURUMEN-EBALUAZIOKO PROZEDURA.....</b>	<b>25</b>
<b>B.1 BEHARREZKOA EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>26</b>
<b>B.1.1 INGURUMEN-EBALUAZIOAREN KASUAK .....</b>	<b>26</b>
B.1.1.1 Ingurumen ebaluazioa aplikatzea .....	26

<b>C. JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO AZTERKETA .....</b>	<b>27</b>
<b>C.1 BEHARREZKOA EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA.....</b>	<b>28</b>
C.1.1 JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO AZTERKETA EGITEKO KASUAK .....	28
<b>D. INPAKTU AKUSTIKOAREN AZTERKETA .....</b>	<b>29</b>
<b>D.1 ERAGIN AKUSTIKOAK .....</b>	<b>30</b>
D.1.1 AURREKARIAK.....	30
D.1.2 UDALERRIAN ESKURAGARRI DAGOEN INFORMAZIOA .....	30
D.1.3 KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK .....	30
D.1.4 KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK BETETZEAREN AZTERKETA, ZARATA-MAPA ESTRATEGIKOETAN OINARRITUTA .....	31
D.1.5 ONDORIOAK .....	32
<b>E. I. ERANSKINA. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA</b>	<b>35</b>
<b>E.1 SARRERA.....</b>	<b>36</b>
E.1.1 ARAU- ETA ERREFERENTZIA-ESPARRUA .....	36
E.1.1.1 Estatukoak.....	36
E.1.1.2 Erkidegokoak.....	36
E.1.1.3 Foru-mailakoak .....	36
<b>E.2 ARAU-PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA .....</b>	<b>38</b>
Arau-proiektuaren izena .....	38
Sail eta zuzendaritza sustatzailea .....	38
Proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten beste arauak, planak, etab.....	38
Arau-proiektuaren helburu orokorrak .....	39
Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak.....	39
<b>E.3 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA .....</b>	<b>40</b>
Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak emakumeei eta gizonei ekarriko dizkien onurek edo haien emaitzek lagundu egingo duela sektoreko desberdintasunak murrizten? .....	40
Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-ekintzak desberdintasunak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituela baliabideak eskuratzeari dagokionez? .....	40
Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu izatea edo, behintzat, ordezkariak hori esparruan duten presentziaren maila berekoa izatea?.....	40
Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-ekintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumeei eta gizonei egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gainditzeko edo aldatzeko? .....	41
Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea? .....	41
<b>E.4 EMAKUMEEN ERA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EKIDITEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK .....</b>	<b>42</b>
<b>F. II. ERANSKINA. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA .....</b>	<b>45</b>
<b>F.1 JUSTIFICACIÓN DE INNECESARIDAD .....</b>	<b>46</b>

<b>G. III ERANSKINA. HERRITARREN PARTAIDETZA.....</b>	<b>47</b>
G.1 LEGE-ESPARRUA.....	48
G.2 LABURPEN EXEKUTIBOA .....	49
<b>H. DOCUMENTAZIO GRAFIKOA.....</b>	<b>51</b>
H.1 AURKIBIDEA.....	52



# **A. MEMORIA**

# A.1 SARRERA

## A.1.1 SUSTATZAILEA

Dokumentu hau Osakidetzak eskatuta idatzi da, lursailan garatuko diren jardueren sustatzailea gisa.

## A.1.2 ERREDAKTORE-TALDEA

Xehetasun Azterketa honen erredaktore-taldea Estudio de Renovación y Desarrollos Urbanos SL (ERDU) da.

Jakinarazpenetarako helbidea honako hau da: Colón de Larreategui kalea 2, nagusia eskuinean, 48001, Bilbo; eta telefono-zenbakia: 944 719 667.

## A.1.3 APLIKAZIO-EREMUA

Xehetasun-azterketa honen aplikazio-eremua 4785210 katastro-partzela da, Elgoibarko (Gipuzkoa) Kalebarren plazako 1. eta 2. zenbakietan dagoena. Partzela hori bat dator Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko (HAPOko) "1.A.3 – Merkatua" deritzon azpieremuarekin (2013/01/22ko Behin Betiko Onarpena (2012/03/05eko GAO, 044 zk.)).

## A.1.4 AURREKARIAK ETA XEDEA

Elgoibarko egungo osasun-zentroa Elgoibarko Bernardo Ecenarro kaleko 13. zenbakian dago. Eraikina 1983koa da. Gaur egun, azpiegitura hori ez da nahikoa herritarren beharrei erantzuteko, zentro horretan eskaintzen baitira Lehen Mailako Arreta, Pediatria (Mendaro eta Elgoibarko biztanleak artatzen dira) eta emakumeentzako arreta (Elgoibar, Soraluze eta Mendaroko biztanleak artatzen dira). Horrek esan nahi du 17.982 OTIko herritarrei arreta ematen zaiola guztira: 12.367 Elgoibarrekoa, 1.658Mendarokoak eta 3.957S Soraluzekoak.

Elgoibarko osasun-zentroan, unitatearen burua denez, LMUko profesional guztien talde-bilerak eta saio klinikoak egiten dira.

Era berean, Debabarrena ESiko Call Center ere eraikin honetan dago.

Kontuan hartuta LMM- eta pediatria-kupo bakoitzeko erabiltzaile-kopuruari buruzko Osakidetzaren estandarrak, eta egungo zentroan mediku bakoitzeko OTIak irizpide horietara egokituta daudenez, osasun-zentro funtzionalagoa eta asistentzia-beharretara egokituagoa eraikitzeo beharra sortu da, zerbitzuaK handitzeko aukera emango duena.

Elgoibarko Osasun Zentro berria Kalebarren plazan egongo da, hirigune historikoaren erdigunean, Elgoibarko hiru kale garrantzitsuenek bat egiten duten tokian: San Frantzisko kalea, Errosario kalea eta San Bartolome kalea. Plaza horretan, gainera, kultur etxe ohia dago, Alzola dorretxea, eraikin historikoa eta balio arkitektoniko eta kulturala duena. Osasun-zentro berriak hiri-bilbea amaitzen duen lursail bat okupatuko du. Hiri-bilbe hori hirigune historikoan oso bereizgarria den mehelinen arteko etxebizitza-blokez osatuta dago, "erritmo", eskala eta eraikuntza-ezaugarri bereziekin.

Beraz, udalerrriaren barruko kokaleku berezi baten aurrean gaude.

Hori horrela izanik, garrantzi berezia du anbulatorio berriaren eraikina hiri-bilbe horretan integratzea bere ezaugarri bereziak kontuan hartuta, eskalari, materialei, aldameneko eraikinekin duen harremanari, hiri-bilbeari eta abarri dagokienez.

Besteak beste, Elgoibarko HAPOk solairuen arteko hiru metroko distantziako bolumetria bat jasotzen du, guztiz eragingabea osasun-zentro baten instalazioak ezartzeko eta azpiegitura- eta aireztapen-beharrak asetzeko.

Xehetasun-azterketa honen helburu Nagusia da, beraz, Elgoibarko HAPOk ezarritako antolamendua egokitzea, osasun-zentro berri bat eraiki ahal izateko.

## A.1.5 INDARREAN DAGOEN LEGE-ESPARRUA

Xehetasun-azterketa hau idazteko kontuan hartutako esparru juridikoa jarraian zerrendatzen diren xedapenek osatutakoa da, besteak beste:

### A.1.5.1 Estatuko hirigintza-legeria

- 7/2015 Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruaren eta hiri Errehabilitazioaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, Birgaitzeari eta Hiri Berroneratze eta Berrikuntzari buruzkoa (indarrean dauden artikulua).
- 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruari buruzko Legearen balioespenen Erregelamendua onesten duena.

### A.1.5.2 Erkidegoko hirigintza-legeria

- 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, Hirigintza-jardueraz sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoa.
- 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten presako neurriei buruzkoa.
- 45/2025 Dekretua, otsailaren 18koa, hirigintzako estandarrak arautzekoa.
- 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituena.

### A.1.5.3 Estatuko ingurumen-legeria

- 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.

### A.1.5.4 Erkidegoko ingurumen-legeria

- 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 9/2021 LEGEA, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
- 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.

### A.1.5.5 Bestelako legeria (honakoei buruzkoa: lurraldea, ondarea, generoa, zarata...)

- 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolamenduari buruzkoa.
- 10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 Euskal Estatistika Planarena, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Estatistikari buruzko Legea hirugarren aldiz aldatzekoa.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzei buruzkoa.
- 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- 9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Telekomunikazioei buruzkoa.

#### A.1.5.6 Udal-plangintza

- Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO). Behin betiko onespena: 2013/01/22 (GAO, 044. zk., 2012/03/05ekoa).

### A.1.6 DOKUMENTU HAU IDAZTEKO HIRIGINTZA-JUSTIFIKAZIOA

Xedea ezagututa, izapidetzeko hirigintza-tresna egokitzat jotzen da "xehetasun-azterlana". Jarraian, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan zehaztutakoa jasotzen da.

#### **73.artikula.** Xehetasun-azterketak.

1. Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela.

2. Gauza hauetara mugatuko dira xehetasun-azterketak:

- a) Antolamendu xehatuak agindutako sestrak eta lerrokadurak adieraztea, zuzentzea edo osatzea.
- b) Bolumenak dena delako plangintzan aurreikusitakoaren arabera antolatzea. Bolumenen berrantolaketa tipologikoaren edo morfologikoaren ondorioz hala egiteko beharra badago edo hala egitea komeni bada, bide berriak egiteko edo zuzkidura publiko berriak egiteko lurzoruaren kalifikazioa ere jaso daiteke antolaketa horretan.
- c) Urbanizatzeko-lanen, eraikuntzen, instalazioen eta gainerako obra eta hiri-elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetiko eta konpositibo batzuk arautzea. Ezaugarri horiek antolamendu xehatuan egongo dira jasota.

3. Xehetasun-azterketek ezingo dute, inola ere, kasuan kasuko plangintzak azterlan horiek egiteko ezarritako aurreikuspenak urratu edo horiei kasurik ez egin. Halaber, ezingo dute lurzoruari izendatutako erabilera aldatu, eraikigarritasuna handitu eta plangintzak dakartzan bideak edo zuzkidura publikoak ezabatu edo gutxiarazi, aurreko paragrafoko b) letran xedaturikoari ezer kendu gabe.

#### A.1.6.1 Antolamendu xehatuaren zehaztapenak osatzeko edo egokitzeko beharraren edo komenigarritasunaren justifikazioa

Atal honek Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan ezarritakoa bete nahi du. Artikulu horren 1) puntuaren arabera, "Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak. Plangintzan aurreikusita ez badago, xehetasun-azterketak berak erakutsi behar du zehaztapen horiek osatu edo egokitzeko beharra dagoela edo hala komeni dela".

Kasu honetan, xehetasun-azterketa honen xede den eremuan osasun-zentro berri bat eraikitzeke esku-hartzea dela eta, komenigarritzat eta beharrezkotzat jotzen da eraikuntzaren forma arautzen duten parametroak eta horien lerrokadurak eta sestrak zehaztea edota egokitzea, aurreikusitako programa gauzatu eta egokitu ahal izateko, indarrean dagoen araudia betetzeaz gain.

Premia hori bat dator Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluen 2. puntuan zehaztutakoarekin.

#### A.1.6.2 Xehetasun-azterketaren edukia

Xehetasun-azterketaren edukiari dagokionez, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 74. artikuluan ezarritakoa hartu behar da kontuan:

#### **74. artikulua.** Agiriak.

Xehetasun-azterketen edukia agiri hauetan egongo da jasota:

1. Memoria bat, bi gauza hauek justifikatzeko: alde batetik, aurreko artikuluko 2. paragrafoan ezarritako legezko mugak errespetatu egin direla, eta bestetik, bere kasuan, plan orokorreko edo garapen-plangintzako zehaztapenak osatu edo egokitu egin behar direla.
2. Informazio-planoak.
3. Antolamenduaren planoak.

## A.1.7 EDUKIA

Aurreko puntuan zehaztutakoa ikusita, xehetasun-azterketa hau honako agiri hauek osatzen dute:

- Memoria
- Informazio-planoak
- Antolamendu-planoak

## A.1.8 IZAPIDETZEA

Xehetasun-azterketa izapidetzeari dagokionez, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituenak, 33. Artikuluan, *Hirigintza-antolamenduko beste tresna batzuk* deritzona, argi eta garbi ezartzen du Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea jo behar dela izapidetzeko:

**33. artikulua.**– *Hirigintza-antolamenduko bestelako tresnak.*

*1.– Xehetasun-azterketen onespenuk Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikuluan aurreikusitako izapideak errespetatuko ditu (...)*

Aipatutako Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98. artikulua honakoa ezartzen du:

**98. artikulua.** *Xehetasun-azterketak izapidetu eta onartzea.*

- 1.-Xehetasun-azterketei eskumena duten udalek emango diete hasierako onspena hiru hilabeteko epean.*
- 2.-Hasierako onspena eman ondoren, jendurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldirik ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.*
- 3.- Xehetasun-azterketei behin betiko onspena ematea udalari dagokio; horretarako, hiru hilabeteko epea izango du, hasierako onspena ematen zaienetik. Epe hori ebatzen jakinarazi gabe igarotakoan, xehetasun-azterketa alderdietako batek eskatuta aurkeztu baldin bada, interesdunak ezetsia izan dela iritzi ahal izango dio.*

46/2020 Dekretuak, 37. artikuluan (“Administrazio-isiltasuna plangintza onesteari dagokionez.”), behin betiko onartzeko epea azaltzen du:

**37. artikulua.**– *Administrazio-isiltasuna plangintza onesteari dagokionez.*

*(...)*

*5.– Partikularrek eskatuta egindako xehetasun-azterketak behin betiko onesteko epea hiru hilabetekoa da hasierako onspenetik zenbatzen hasita, eta epe hori igarotzen bada, eta ez bada dagokion ebatzpena ematen, interesdunak edo interesdunek ulertu ahal izango dute ezetsi egin dela.*

*(...)*

Agiria jendurrean jartzeari dagokionez, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25. artikulua, “Publikotasuna eta eraginkortasuna hirigintzaren kudeaketa publikoan” deritzona, honakoa ezartzen du:

**25. artikulua.** *Publikotasuna eta eraginkortasuna hirigintzaren kudeaketa publikoan*

- 1. Lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko tresna guztiek, onurak eta kargak banatzeko direnak barne, eta administrazio eskudunak xede horrekin izenpetuko dituen hitzarmenek, informazio publikoaren izapidea jarraitu behar dute gai horretako legeriak ezartzen duen eran eta epean, zeina inoiz ezin izango baita administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian galdatzen den gutxienekoa baino laburragoa, eta legeek zehazten duten forman eta edukiarekin argitaratu beharko dira.*
- 2. Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresna guztien behin betiko onspen erabakiak dagokion aldirik ofizialean argitaratuko dira. Tresna horietan biltzen diren arau eta ordenantzei dagokienez, aplikagarri den legeriak aginduko du.*
- 3. Hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko prozedurretan, jendurrean jarritako dokumentazioak honako hauek adierazten dituen laburpen exekutiboa ekarri beharko du:*

*a) Proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoena zein eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketa horren norainokoa adieraziz.*

*b) Hala badagokio, zein eremutan uzten diren geldieran hirigintza-antolamendua edo hirigintza-planak exekutatzeko zein hirigintzan esku hartzeko prozedurak, eta geldiera horren iraupena.*

*4. Administrazio publiko eskudunek bide telematika bultzatuko dute indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen edukia eta haien informazio publikoa ematen delako iragarpena publiko egiteko.*

Alde horretatik, Xehetasun Azterketa hirigintza-plan bat ez bada ere, eta haren xedea eraikuntza-lerrokadurak egokitzea besterik ez bada ere, herritarrek behar bezala parte har dezaten, egikaritze-laburpeneko berariazko atal bat gehitu da.

## A.2 EREMUAREN HIRIGINTZA-ANALISIA


### A.2.1 EREMUAREN DESKRIBAPENA

Sarreran azaldu bezala, osasun-zentro berria Kalebarren Plazan txertatuko da, San Frantzisko kaletik jarraitzen duen hirigunearen bilbe gotikoarekin mehelinean.

Eremuaren partzela, trapezoidala, plaza horren ipar-ekialdean dago, San Frantzisko kalearen aldamenean eta Aita Agirre plazako aparkalekuaren aurrean.

Mugakide da honako hauekin: Deba ibaia iparraldean, Kalebarren plaza hegoaldean, Alzola dorrea mendebaldean eta San Frantzisko kaleko etxebizitza-erakina ekialdean.

XV. mendeko Alzolatarren dorre noblearen ondoko lursaila antzinako harresiaren ertzean dago, hareatza ohi batean. Ideia eder hori berreskuratu nahi da, ibaiarekiko ikusizko harremanaren bidez. Erdiko zatia beherago egongo da, Alzola dorrearen erdi-sotoko lokaletarako sarbidea ematen jarraitzeko, eta, aldi berean, haren monumentaltasuna indartzeko. Gaur egun, 70eko hamarkadan egindako udal-merkatuko eraikina dago. Eraikin horrek L forma du eta iparraldean espazioa ixten du (beraz, ibaia ez da ikusten) eta ekialdean erdigune historikoaren bilbearen aurka dago.



Marrazki historikoa.

Aipatutako eraikinak erdisotoa eta BS+4 solairu ditu eta estalki terrazaduna. San Frantzisko kalerantz entsegu-lokalak eta udal-merkatua daude; okupazio txikia da.



Orubearen aireko ikuspegia (iturria: Google Maps).



*Orubearen aireko ikuspegia (iturria: Bing Maps)*

Aurreikusita dago egungo merkatuko eraikina eraistea, osasun-zentro berria egiteko. Beraz, orubearen baldintzak egingo diren jarduketan eta eraitsi eta sortutako eraispén-hondakinak atera ostean orubearen ondoriozkoak izango dira.



*Eraikina Kalebarrenplazatik ikusita. Irudiaren ezkerrean, Alzolarren dorrea.*



*Eraikinaren iparraldeko fatxadaren irudia Deba ibaitik. Irudiaren eskuinean, Alzolarren dorretxea.*

“1.A.3- Merkatua” azpieroemurako hirigintza-fitxak zehaztutako eremuan osasun-zentro berria URA Uraren Euskal Agentziak definitutako uholde-arriskuko eremuan dago, errepikapen ertain eta txikiko (100 eta 500 urteko errepikatze-denbora) uraldiek eraginda eta lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo, hurrengo irudian ikus daitekeen bezala.



*Aztertutako lurzatiko urak har ditzakeen azalerak*

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa betetzeko (hirugarren ziklorako berrikuspena: 2022-2027), 35/2023 Kantauri Mendebaldeko Demarkazio Hidrografikoen Plan Hidrologikoen berrikuspena onartzen dituen urtarrilaren 24ko Errege Dekretua eta urak har ditzakeen eremuetako erabilerei ezarritako mugak betetzeko, eraikin berriak sarbideak eta irteerak 500 urteko errepikatze-denborarako aurreikusitako uholde-arriskuaren kotatik gora planteatuko ditu.


## **A.2.2 PARTZELAREN TITULARTASUNA**

Xehetasun-azterketa honen xede den partzela titulartasun publikoko da.

## A.2.3 HIRIGINTZA-ARAUDIA

Xehetasun-azterketa honen eremua Elgoibarko HAPOko "1.A.3 – Merkatua" azpieroemua da. Azpieroemua hori hiri-lurzoru gisa sailkatuta dago, bere kalifikazio orokorra "A.10. Hirigune zaharreko bizitegia" da eta kalifikazio xehatua "g.00. Komunitate-ekipamendua".

Eraikuntzaren forma arautzen dituzten baldintzak, bai eta lerroak eta sestrak ere, fitxa grafikoan ezarritakoak dira:



Fitxan zehaztutakoaz gain, Hirigune Zahararako ordenantza partikularrak (a.10) hartu behar dira kontuan:

#### **Hirigune Zahararako Ordenantza Partikularrak (a.10)**

##### **1- Lurzatiak eta Eraikuntzak.**

Lurzatiak eta eraikuntzen artean gaur egun dagoen harremana gorde egin beharko da. Lurzati batzuen gainean eraikitzen diren eraikuntzek lehendik dauden mehelin hormak horretan gorde eta eraikin independente bezala osatu beharko dute, horietako bakoitzak bere sarrera eta portak independenteak izanik. Udalbatzak bidezko jotzen dituen zenbait arrazoiengatik zaila izango balitz hori burutzea, elkarren ondoko bi lurzatiak amankomunak izango diren irispide bertikal, portal eta barne patioa duten multzoak eraikitzea baimenduko luke, ahal dela mehelin horma barnean utziz eta bi fatxadak kanpokaldera adieraziz.

...

##### **4- Eraikinen altuerak.**

...

Nafarroako Plaza osatzen duten eraikinen teilategalak Alzola Dorrearen teilategalak duen altuera berdina izango dute.

...

##### **6- Estalkia.**

Estalkian bi isurialde izango ditu, bi plazak eta Magdalena Parkea osatu eta mugatzen duten eraikinek ezik, horiek hiru izango bait dituzte.

Estalkiaren gehienezko aldapa %35ekoa izango da. Erreten eta zorrotak agerikoak izango dira eta azken hori burdinurtuzkoa izango da eta gutxienez behe solairutik lehen solairuko sabairainokoa.

Teilategalak 0,60 metrotako gehienezko hegalkina izango du Hirigune Zaharreko kaleetara eta 1 metrotakoa Deba ibaia, Plazak eta Pedro Miguel Urruzuno kalera aldekoak. Teilategalak zurezko egitura izango du Foruen Plaza eta Nafarroako Plaza aldera, eta gainerakoan, hormigoizkoa izan daiteke, baina gehienez 15 zentimetrotako lodiera izango du fatxada aurrean. Inolako terrazarik ez da baimenduko estalkian.

Estalkitik gora luzerarioak, horren paraleloak izango dira eta 0,30 zentimetrotako gehienezko irtengunea izango dute, eta eraikinaren beharrezko instalazioen elementuak eraikitzea bakarrik baimenduko da.

...

##### **7- Hegalkinak.**

Kale eta plazetara baimendutako hegalkin bakarrik balkoiei dagozkienak izango dira, horiek 0,50 metrotako gehienezko irtengunea izango dute eta metalezko baranda kalatua izango dute. Fatxadaren luzeraren %60 batetan hegaldak daitezke gehienez, azken solairuko balkoian izan ezik, hor jarraikoa izan bait daiteke, baina bete ere mehelinetik 0,80 metro bereiziz gutxienez.

Deba ibairantz, hegalkinak fatxadaren luzetarakoak izan daitezke, tradizio gehiagoko tipologiako eraikinen fatxadetako itxiturekin egokituz.

##### **8- Trataera estetikoa.**

Egingo diren eraikuntza berriak Hirigune Zahararen tradiziozko tipologia eta eraikuntzara egokituko dira.

Eraikuntza berriak eraikitzeke lizentzia eskatzerakoan fatxadak ondoko eraikinekin batera marraztu beharko dira. 1:100 eskalara. Mazozoak eraikin osoarekin lotura izatea zainduko da bereziki, eta baita elementu iraunkortzat hartuak.

Lehendik dauden eraikinetan ez da baimenduko behe solairuko hutsarteak handitzea. Lehendik dauden harlanduzko elementuak berri egin beharko da.

Esekitegiak eta saretak ez dira baimenduko fatxadetan; karkaba izeneko gunean bakarrik onartuko dira.

Argidun errotilu edo iragarkiak fatxadaren osaketa orokorrerara egokitu beharko dute eta nolahi ere ez dira 0,20 metro baino gehiago irtengo fatxadatik, gutxienez 2,50 metrotako altueran jarriko dira. Fatxaden perpendikularrean jar daitezkeen errotiluak bakarrik baimenduko dira farmazietako gurutze berdea 0,80 metrotako gehienezko irtengunez eta gutxienezko 2,80 metrotako altueran.

##### **9- Materialak.**

Behere solairuak edota eraikinak berak berritzeko lanetan materialen egoera aztertu beharko da lanak hasi aurretik, interesgarriak diren elementuak berreskuratu edo hobetzeko. Proiektuetan horiei buruzko nahikoa informazio ez balego, Udalak, komenigarri edo beharrezko erizten duen informazio osagarria eskatu aha izango du.

Fatxaden kanpoaldeko aroztegi lana, ate, balkoi, leiho, pertsiana etabarrei dagokiena, zur naturalakoa izango da edo margotzeko, barnizatzeke edo lakatzeko antzeko materialak HIRIGUNE ZAHAR osoan, eta beti ere Udalaren onospena

*izanez. Ordezko aukera gisa, eta behe solairuetako fatxaden itxituretan bakarrik, itxuraz eta diseinuz zurari egokitzen zaizkion materialak onartuko dira, hori gertatzen denean, Udalak horiek onartu aurretik laginak aurkeztea eskatuko du.*

*Foruen Plazara eta Nafarroa Plazara ematen duten behe solairuetan, erabiltzen diren aroztegi itxiturak derrigorrez zurezkoak izango dira.*

*Pertsiana kaxak kanpokaldean jartzea ez da baimenduko. Ahal dela zurezko listoitxoak dituzten pertsianak utziko dira.*

*Kolore gorriko zeramikazko ehuna jarriko da estalkian, eta uralitak edo hormigoizko teilak ez dira baimenduko.*

*Orokorrean, Herrigune Zaharrean oraindik nagusitzen direnak erakutsiko dute zernolako akabera material erabili.*

*Eraikuntza berrien fatxadak harriz eta entokadura margotuz bakarrik bukatuko dira. Ordezko aukera gisa, bere egindura eta akaberagatik harri naturalari egokitzen zaizkion materialak onartuko dira. Hori gertatzen bada, Udalbatzak langinak aurkeztea eskatuko du hori onartu aurretik.*

*10- Patioak.*

*Patioak 3x3 metrotakoak izan daitezke. Eskailera kaxen aireztapena eta argiztapena goitik datorrena izan daiteke. Horrelakoetan, lau goi solairuetan eskailerek 1,50x1,50 metrotako barne hutsartea izan beharko dute eta 2x2 metrotako luzernarioa gutxienez.*

## A.3 PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

Lehen aipatu den bezala, dokumentu hau idazteko beharra eta aukera Xehetasun Azterketa honen xede den eremuan dagoen eraikina ordezkatzearen ondorioz sortu da, beharrei erantzuneko dien Osasun Zentro berri bat eraikitzeko.

Osasun-zentro berria Kalebarren plazan bertan egongo da, plaza bera dinamizatzeko zuzkidura-elementu gisa eta auzoko zentralizatzaile gisa, etorkizuneko erabiltzaileei arreta emateko. Hori ezarpenak, gainera, plazaren fisionomia eratzen du. Proposamena hirigintzaren aldetik egituratzen duten irizpide batzuk nabarmendu behar dira:

- Zentro berriaren ezarpena indartzea, ingurunearen hiri-diseinuarekin.  
Horretarako, Kalebarren plazan elkartzeko diren kaleetako oinezkoen fluxua jasotzen duen hiri-espazioa handitu da, dorretxearen ondoko plaza bera handitzeko eta oinezkoak Deba ibaiaren gaineko terraza berrirantz eta osasun-zentrorara bertara sartzeko sestrarantz bideratzeko.
- Kalebarren Plazaren eta Deba ibaiaren gainean sortu beharreko plaza berriaren arteko lotura egitea, Alzola dorretxearen ondoan Deba ibaiaren ikuspegi hori sortzeko eta ibaiaren gainean hiri-espazio berri bat sortzeko. Ibilgailuentzako aurreikusitako arrapala baten bidez salbatzen da.
- Iparraldeko frontea Deba ibairantz askatu, paisaia erdigune historikoan txertatzeko eta Rosario kalearekin eta ibaiaren gaineko pasabidearekin ondo lotutako egonlekua sortuz.
- Osasun-zentrorako sarbidea Alzotarren Dorretxearen aurrez aurre jartzea, erabiltzaileengana hurbiltzeko eta sortutako hiri-espazioaren handitzean bertan agertzeko.
- Beherago dagoen patioa errespetatzea dorretxearen ekialdeko alboko fatxadaren sarbide-kotan.

Erabiltzaileak batez ere oinez iritsiko dira, batez ere, eta anbulantzia eta larrialdietako ibilgailuentzako sarbidea hasiera batean Aita Agirreko aparkalekuraino soilik izango da. Bertan anbulantzientzako aparkalekua planifikatuko da udaltzaintzat gordetakoan aurrean, plazatik bertatik ibilgailuak igarotzea eta oinezkoentzako den ingurune batean eragitea ahalik eta gehien txikiagotzeko.

Hala ere, San Frantsisko kaleko +41.03 sestratik eta Deba ibaiaren gaineko talaia berriaren +42.00 sestratik ibairako igarobide berriaren bidez, larrialdietako ibilgailuentzako eta anbulantzientzako sarbide bat mantentzen da hiri-igogailuraino, plazatik osasun-zentrorara sartzeko sestraraino dagoen sestra-aldea gainditzen duena.

Era berean, hiri-proposamenak Kantauri Mendebaldeko demarkazio hidrografikoen plan hidrologikoen berrikuspina onartzen duen urtarrilaren 24ko 35/2023 Errege Dekretuaren bidez onetsiako Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (hirugarren ziklorako berrikuspina: 2022-2027) eta uholde-arriskua duten eremuetako erabilerei ezarritako mugak betetzen ditu.

Eraikin berria planteatzen da, 500 urteko errepikatze-denborarako aurreikusitako uholde-arriskuaren kotaren gainetik sarbideak eta irteerak dituen, +43.45 metroko sestran. Horretarako, hiri-proposamena bere hiri-ingurunera egokitzen da, honako zehaztapen hauekin:

- Eraikunaren sarrerako sestra +43,45 metrokoa izango da, GeoEuskadiko sekzioen arabera, H500 uholde-arriskuko sestra gainditzeko.
- +43,45 m-ko plataformara iristen da San Frantzisko kaletik (+41,00 m) eta egungo oinezkoentzako zubiaren lehorreratze-plataformatik (+42,00 m).
- Espazio publikoko plataforma bat planteatzen da Deba ibairantz, +42,00 metroko sestran, eta bertan ez da eraikinik planteatzen, egungo eraikina kendu ondoren.
- Eraikin berriak estankoak diren bi solairu izango H500 uholde-sestraren azpitik.
- Solairu horietako eta eraikin osoko pertsonen ebakuazioa H500 uholde-sestraren gainetik egingo da beti, +43,45m-ko sestra-irteeratik aurrera.
- H 500eko sestra azpiko solairuetako instalazio-ekipo guztiek aireztapenak izango dituzte H500 uholde-sestraren gainetik, eraikinaren funtzionamendua bermatzeko eta, uholde gertagarri baten ondoren, haien funtzionamendu normala berrezartzeko, kalteak ahalik eta gehien murrizteko.
- Erabiltzaileei irisgarritasuna errazteko, San Frantzisko kaletik eraikin berriko behe-solairura joateko dagoen eskaileraz gain, arrapala irisgarri bat egingo da +42 metrora egongo den ibaiaren plaza berritik, +43.45 metrora dagoen behe-solairutik sestra-aldea gainditzeko.
- Era berean, hiri-igogailu bat ezarriko da plazatik behe-solairuko plataformaraino dagoen 1,45 metroko sestra-aldea gainditzeko, erabiltzaileentzako joan-etorriak eta garapen irisgarriak

murrizteko.

Hiri esku-hartzeak trantsizio bat planteatzen du San Frantzisko kaleko +41,00 m-ko sestratik oinezkoentzako zubia lehorreratzeko den +42,00 m-ko sestraraino. +42,00 m-ko sestra horretan hiri-plataforma bat eratzen da, ibai-ertzari jarraipena ematen diona, lehentasunezko fluxu-eremutik kanpo.

Sestra horretatik, +42,00 m-ra, arrapala irisgarri baten bidez igotzen da osasun-zentro berrirako eraikin berriaren behe-solairuako sestrara, +43,45 m-ra. Sestra horretara San Frantzisko kaletik ere sartuko da, zuzenean eskailera baten bidez, plaza publikoaren tarteko sestrara (+42,00 m-ra) iritsi beharrik gabe.

Alzola dorrea kalearen eta osasun-zentrorako eraikin berriaren behe-solairuko plataformaren artean, +41,00 m-ko sestratik +42,00 m-ko sestraraino igarobide bat ezarriko da, 5 metrotik gorako zabalera, larrialdietako ibilgailuak plataforma berrira sartuko direla bermatzeko.

Osasun-zentro berria antzeman ahal izango da bilbe historikoko bizitegi-ingurune batean, eta, aldi berean, sakonki txertatuta eta sustraituta egongo da.

Baldintza horiek kontuan hartuta, Elgoibarko osasun-zentro berrirako proposamenak honako hauek planteatzen ditu:

- Behe-solairu osoa okupatzea, gehieneko lerrokaduraraino, behe-solairuko eta goi-solairuetako azalera guztia aprobetxatzeko. Partzelako espazio libreak behe-solairuan saihestea.
- Udalak aurreikusitako mugakidearekiko tartea mantentzen da, emandako topografikoaren arabera.
- Bere inguruan eta Kalebarren Plazan bertan identifikatzeko moduko eraikina planteatzen du, antzemateko modukoa, plazako benetako protagonistarekin, Alzolarren dorretxearekin, hitz egingo duena.

## **A.3.2 ZEHAZTAPENAK**

Jarraian, egokitutako zehaztapenak soilik adierazten dira. Gainerako guztian, indarrean dagoen araudiak zehaztutakoa beteko da, bereziki, Hirigintza Arau Partikularretan eta HAPOko Alde Zaharrerako (a.10) ordenantza partikularretan jasotako eremuaren fitxan zehaztutakoa.

### **A.3.2.1 Lerrokadurak**

Lerrokadura berriak Xehetasun Azterketa honekin batera doan eta dokumentazio grafikoaren zati diren antolamendu planoetan jasotzen dira.

Nolanahi ere, eraikin mugakidearekiko tartea 60 cm-koa izango da gutxienez. Gainera, larrialdietako ibilgailuentzako pasabidea bat eratu beharko da, Kultur Etxeko eraikinen eta osasun-zentro berriaren artean 5 m baino gehiagoko zabalera.

### **A.3.2.2 Sarbide nagusiko sestra**

Eraikuntzarako sarbidearen sestra +43,45 m-koa izango da, H500 uholde-arriskuko sestra gainditzeko.

### **A.3.2.3 Altuerak**

Beheko solairuen altuera 3,75 m-koa izango da gehienez, sarbidearen sestratik lehen solairuko forjatuaren goiko alderaino neurtuta.

Baimendutako gehieneko altuera 16,50 m-koa izango da, San Frantzisko kaletik (horren sestra +41,00 m-koa da) teilatu-hegalaren beheko planora neurtuta.

Teilatu-hegalak Alzola dorrearen teilatu-hegala bera gainditu ahal izango du altueran.

### **A.3.2.4 Solairu-kopurua**

Sotoa, erdisotoa, behe-solairua eta hiru goi-solairu izango ditu.

### **A.3.2.5 Estalkia**

Estalkiak lau isurialdekoak izango dira.

Hegalak gehienez 1 m izango du iparralde, mendebalde eta hegoaldeko isurialdeetan, eta 0,60 m ekialdeko isurialdean. Eta gehienez 20 cm-ko lodiera izango du fatxadaren aurrealdean.

Estalkiaren gainetik eraiki ahal izango dira argizuloak, eraikinean beharrezkoak diren instalazioen elementuak eta igogailuaren kasetoia (horrek ezin izango du erremate-sestra gainditu).

#### **A.3.2.6 Hegalkinak**

Babes-elementuei dagozkien hegalkinak (sareta parasola) baimenduta daude fatxada guztietan, gehienez 0,50 m-ko irtengunea dutela iparraldeko eta hegoaldeko fatxadetatik, eta 0,80 m-koa mendebaldeko fatxadatik; eta gutxienez 2,50 m-ko altueran.

#### **A.3.2.7 Trataera estetikoa**

Fatxadan sareta onartuko dira eguzkitako babes-elementu gisa.

#### **A.3.2.8 Baoak**

Eraikin berriak bi solairu itsu izan ahalko ditu, H500 uholde-sestraren azpitik baorik gabe.

#### **A.3.2.9 Materialak**

Igogailu publikoen diseinua material gardenekin egingo da (beira edo antzekoak), kabinaren barrualdea eta kanpoaldea ondo ikusten direla bermatzeko behar den proportzioan eta tokian, gizalegearen aurkako portaerak edo delituak burutzeko asmoak uxatzeko eta erabiltzaileen segurtasun-sentsazioa handitzeko.

#### **A.3.2.10 Aireztapena**

Instalazio-ekipoek H500 uholde-sestraren gaineko aireztapenak izango dituzte, eraikinaren funtzionamendua bermatzeko eta uholde-arrisku baten ondoren funtzionamendu normala berrezartzeko, kalteak ahalik eta gehien murriztuz.

## A.4 IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA

Atal honen xedea da justifikatzea Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 17.artikuluak esandakoa betetzen dela. Aipatutako artikulua plangintza-tresnak lege horren zehaztapenei egokitzen direla egiaztatzeko udal eskumenari buruzkoa da.

Bertan proiektatuko diren eraikinak eta instalazioak irisgarritasuna sustatzeko indarrean dagoen honako araudia bete beharko dute:

- Erkidegokoa
  - Indarrean dagoen Euskal Autonomi Erkidegoko irisgarritasunaren araudi teknikoaren aplikazio-gida ( 2012ko uztaila).
  - 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna.
  - 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena.
  - 68/2000 Dekretuaren Eranskinak.
  - 42/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen dekretua aldatzeko dena.
  - 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa.
- Estatukoa
  - 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duena.
  - 505/2007 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, ezgaitasunen bat duten pertsonak espazio publiko urbanizatueta eta eraikinetara sartu eta horiek erabiltzeko behar dituzten oinarriko irisgarritasuneko eta bereizkeria ezeko baldintzak onesten dituena.
  - Ezgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmena berresteko tresna, New Yorken, 2006ko abenduaren 13an, egindakoa (Hitzarmen hori indarrean sartu zen 2008ko maiatzaren 3an, orokorrean eta Espainian barne, bere 45. artikulua arabera).
  - VIV/561/2010 Agindua, otsailaren 1ekoa, espazio publiko urbanizatuak irisgarriak egiteko eta erabili ahal izateko irisgarritasuneko eta ez-diskriminazioko oinarriko baldintzen dokumentu teknikoa garatzen duena.
  - 173/2010 Errege Dekretua, Otsailaren 19koa, Eraikingintzaren Kode Teknikoa onartzen duen martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretua aldatzen duena.
  - ED EKT-OD ESI. Lehendik dauden eraikinen irisgarritasun-baldintzen benetako egokitzapena. Sustapen Ministerioak argitaratua.
  - 26/2011 Legea, abuztuaren 1ekoa, Desgaitasunen bat duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentziara moldatzeko arauak ezartzen dituena.
  - 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena.

Zentzu horretan, aipatutako legedia betetzea eskatuko da etorkizunean burutuko diren jarduketetan. Beraz, kanpoaldeko espazioak aldatzekotan, hiri-ingurunearen irisgarritasun baldintzak betetzen direla ziurtarazten duen Urbanizazioko Obra Osagarrien Proiektu bat aurkeztu beharko da. Era berea, eraikinaren barnealdean jarduketarik burutzekotan eraikinaren barruan irisgarritasun baldintzak betetzea eskatuko da.

## **A.5 SUTEEN AURKAKO SEGURTASUNERAKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA**

Eremuan proiektatutako diren eraikuntza berriko proiektuek honako araudi hau bete beharko dute: Eraikingintzaren Kode Teknikoaren Oinarrizko Dokumentua - Suteen aurkako babesak eta Eraikingintzaren Kode Teknikoaren Oinarrizko Dokumentua - Erabileraren araberako ebakuazio-bideak solairu bakoitzean, suteen aurkako babeserako instalazioak, irisgarritasuna fatxadan, eta abar.

Nolanahi ere, solairu horietako eta eraikin osoko pertsonen ebakuazioa H500 uholde-sestraren gainetik egingo da beti, + 43,45 m-ko sestrako irteeratik aurrera.

## **A.6 TELEKOMUNIKAZIOEI BURUZKO INDARREKO ARAUDIA BETE IZANAREN JUSTIFIKAZIOA**

Telekomunikazioei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legeak, 35. artikuluan (*Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren eta herri-administrazioen arteko lankidetzaren mekanismoak, komunikazio elektronikoen sare publikoak hedatzeko deritzona*), ezartzen du Industria, Energia eta Turismo Ministerioaren dagokion txostena jaso beharko dela.

Eskaera hori Komunikazio elektronikoen sare publikoen hedapenari eragiten dioten lurraldeko edo hirigintzako plangintza-tresnak onartzeko, aldatzeko edo berrikusteko ardura duten organoei dagokie.

Xehetasun-azterketa honen xedea eta, oro har, xehetasun-azterketen irismena ikusita (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 73. artikulua), kasu honetan ez da txostena eskatu behar.

## **B. INGURUMEN- EBALUAZIOKO PROZEDURA**

## **B.1 BEHARREZKOA EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA**

### **B.1.1 INGURUMEN-EBALUAZIOAREN KASUAK**

#### **B.1.1.1 Ingurumen ebaluazioa aplikatzea**

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak, 6. artikuluan (*“Lurralde- eta hirigintza-plangintza ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozeduraren mende jartzea”*) argi eta garbi ezartzen du ez dela beharrezkoa xehetasun-azterketak ingurumenaren aldetik ebaluatzea:

Ondorioz, ez da ingurumen-izapiderik egin.

# **C. JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO AZTERKETA**

## C.1 BEHARREZKOA EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA

### C.1.1 JASANGARRITASUN ENERGETIKOARI BURUZKO AZTERKETA EGITEKO KASUAK

Jasangarritasun Energetikoari buruzko Azterketa bat egiteko eskakizuna Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legetik dator.

Zehazki, 7. Artikulua (Lurraldearen antolamendua eta hirigintza), 2. puntuan, honakoa ezartzen da:

*2. Aurrekoa bete beharko dute baliabide hauek:*

- a) Lurralde-antolamenduaren gidalerro nagusiek, lurralde-plan partzialek eta lurralde-plan sektorialek.*
- b) Egiturazko antolamenduko planek, hiri-antolamenduko plan orokorrek, plangintza orokorra bateragarri egiteko planek, sektorizazio-planek, eta, hala badagokie eta erregelamenduz ezartzen diren baldintzetan, antolamendu xehatuko planek.*
- c) Errepide-planek edo garraio-azpiegituretako planek eta salgaiak banatzeko logistikan zuzenean eragiten duten planek.*

*Goi-mailako plangintzan egiten diren zehaztapenak kontuan hartuko dira mendeko baliabideetan ere.*

Xehetasun-azterketak, beren izaeragatik, "plangintzako beste tresna batzuk" dira, zehaztapen xehatuak egokitzeko soilik. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikulua araber:

*1. Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak.*

Legeak erregelamenduzko garapenera bideratzen duenez antolamendu xehatuko planen kasua, eta kontuan hartuta, gainera, xehetasun-azterketak "antolamendu xehatuko zehaztapenak osatzen edo jasotzen dituela" (ez da tresna berez), ez da beharrezkoa Jasangarritasun Energetikoari buruzko Azterketa egitea.

# **D. INPAKTU AKUSTIKOAREN AZTERKETA**



Ere mu akustiko mota		Zarataren adierazleak		
		L <sub>d</sub>	L <sub>e</sub>	L <sub>n</sub>
E	Osasun-, hezkuntza- eta kultura-erabilerako lurzorua nagusi diren eta hots-kutsaduraren aurkako babes berezia behar lurrealde-esparru edo -sektoretarako zehaztutakoekin.	60	60	50
A	Bizitegi-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	65	65	55
D	c) paragrafoan jasotakoa ez bestelako hirugarren sektoreko erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo sektoreak.	70	70	65
C	Jolaserako eta ikuskizunetarako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	73	73	63
B	Industria-erabilerako lurzorua nagusi diren lurrealde-esparru edo -sektoreak.	75	75	65
F	Garraio-azpiegiturako sistema orokorreko edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurrealde-esparru edo -sektoreak.	(1)	(1)	(1)

(1) Beren eremuaren mugan, mugakide dituen eremuen zonakatzeko motari dagokionak izango dira.

Hala ere, *Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 31. artikulua* arabera ("*Hiritartutako eremuetarako nahiz etorkizuneko garapenetarako kalitateko helburu-balioak*" deritzona), "etorkizuneko hirigintza-garapenak" kalitateko helburu-balioa gutxienez 5 dBA txikiagoa izango dute dekretuaren I. eranskinaren 1. atalaren A taulan aurreikusitakoak baino, zonakatzeko akustikoari dagokionez.

Beraz, xehetasun-azterketa honen eremuan bete beharreko kalitateko helburu-balioak honakoak dira::

Zarataren adierazleak		
L <sub>d</sub>	L <sub>e</sub>	L <sub>n</sub>
60	60	50

Bestalde, aipatutako artikulua arabera, bizitegi-, osasun-, hezkuntza- edo kultura-erabileretarako eraikinen barrualdeko espazio bizigarriari aplikatzeko zarataren Kalitate Akustikoko Helburuak (1) honakoak dira:

Eraikinaren erabilera (2)	Esparru mota	Zarataren adierazleak		
		L <sub>d</sub>	L <sub>e</sub>	L <sub>n</sub>
Etxebizitza edo bizitegi-erabilera	Gelak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Ospitalea	Egonguneak	45	45	35
	Logelak	40	40	30
Hezkuntza- edo kultura-erabilera	Ikasgelak	40	40	40
	Irakurketa-gelak	35	35	35

(1) Eremuaren barruko aldera iristen diren zarata-foku guztien (hots, eraikin beraren edota ondoko eraikinetako instalazioen, barruko aldera heltzen den inguru-zarataren) immisio-indizeari dagokio B taulako balioak.

(2) Eraikinaren erabilera benetako erabilerari dagokio, hau da, ezarritako ordutegiaren baten barruan eraikina erabilera horietarako baliatzen ez bada ez zaio dagokion kalitate akustikoko helburua aplikatzen.

Oharra: barnealdean aplikatu daitezkeen kalitate akustikoko helburuek 1,2 eta 2,5 metro arteko garaierara neurtuko dira.

## D.1.4 KALITATE AKUSTIKOKO HELBURUAK BETETZEAREN AZTERKETA, ZARATA-MAPA ESTRATEGIKOETAN OINARRITUTA


Jarraian, Zarata Mapa Estrategikoak azaltzen dira. Mapa horiek foku bakoitzeko badaude ere, kasurik txarrena garatzen da: zarata osoa.



Nivel de Ruido en dB(A)

55 <=	< 60
60 <=	< 65
65 <=	< 70
70 <=	< 75
75 <=	

Hots-mailen mapa. Zarata Totala. Ld.



Nivel de Ruido en dB(A)

55 <=	< 60
60 <=	< 65
65 <=	< 70
70 <=	< 75
75 <=	

Hots-mailen mapa. Zarata Totala. Le.



Nivel de Ruido en dB(A)

50 <=	< 55
55 <=	< 60
60 <=	< 65
65 <=	< 70
70 <=	

Hots-mailen mapa. Zarata Totala. Ln.

Ikus daitekeenez, kalitate akustikoko helburuak ez dira betetzen hiru aldietan.

## D.1.5 ONDORIOAK

Gaur egun KAHen ez-betetze bat badago ere, XA honen xedeak ez du ahalmenik isurpen-fokuak leheneratzeko edo aldatzeko, ez baitu erabilerarik birkalifikatzen, eta ez du antolamendu berri bat ezartzen bolometriari buruzko parametroak doitzeaz harago (ez ditu erabilerak antolatzen/berrantolatzen, ez eta partzelak aldatzen ere).

Sortzen den espazio libreari dagokionez, plangintza orokorretik dator, eta bertan ez da inolako neurririk jasotzen, idazketa eta behin betiko onaspenaren data kontuan hartuta. Horiek, nolana ere, zonako plan batean planteatu beharko lirateke, eta ez espazio horretako esku hartze puntuean; izan ere, espazio libre horretan neurri egingarri bakarria pantaila akustikoak ezartzea izango litzateke, haren funtzionaltasunaren aurkakoak, ikusmen- eta paisaia- inpaktuaz gain.

Eraikiko den edozein eraikin berritan edo birgaitze totala behar duten eraikinetan, barrualderako ezarritako KAHK betetzeko beharrezkoa den isolamendua izan beharko du.

Eraikigintzaren Kode Teknikoan (EKT), eguneko aldia erreferentziatzen hartuta, eraikinen fatxadetako isolamendua ezartzen du.

Jarraian, EKTaren Zarataren aurkako babesaren Oinarrizko Dokumentuaren 2.1. taula azaltzen da. Bertan, fatxadetan eguneko aldian jasotzen diren zarata-mailen arabera aire-zarataren gaineko isolamendu akustikoak zeintzuk izan behar diren adierazten da:

Tabla 2.1 Valores de aislamiento acústico a ruido aéreo,  $D_{2m,nT,Ab}$ , en dBA, entre un recinto protegido y el exterior, en función del índice de ruido día,  $L_d$ .

$L_d$ dBA	Uso del edificio			
	Residencial y sanitario		Cultural, docente, administrativo y religioso	
	Dormitorios	Estancias	Estancias	Aulas
$L_d \leq 60$	30	30	30	30
$60 < L_d \leq 65$	32	30	32	30
$65 < L_d \leq 70$	37	32	37	32
$70 < L_d \leq 75$	42	37	42	37
$L_d > 75$	47	42	47	42

Gai hori dagokion eraikuntza-proiektuan justifikatu beharko da.

Hala ere, balore horiek erreferentziatzen hartzeak ez du esan nahi barrualdeetan eta aldi guztietan (ez bakarrik eguneko aldian) KAHK beteko direla. Izan ere, hasteko gaueko aldia kalterik gehien jasaten duen aldia da, ez eguneko. Gainera, behar den isolamendua ez dago soilik eguneko adian eraikinen kanpoaldetan jasotzen den zarata-mailaren menpe, baizik eta babestu beharreko eraikinen beste hainbat ezaugarrien menpe ere; adibidez, eraikinaren bolumenta edo fatxadaren hutsuneen ehunekoak.

Horregatik, eraikuntza berri bat eraikitzen denean, sustatzaileak eraikinak behar duen isolamendua zehazten duen ikerketa zehatz bat egin beharko du, eraikuntza-proiektuan. Bertan, kontuan hartuko dira ere babestu beharreko esparruen alderdi bereizgarriak (aurrez aipatutakoak), kanpoko espazioan aurreikusten den zarata-mailaz gain.



**E. I. ERANSKINA.  
GENEROAREN ARABERAKO  
ERAGINAREN TXOSTENA**

## E.1 SARRERA

18ko 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, euren arauak garatzerakoan eta aplikatzerakoan euskal herri-administrazioek eraginkortasunez izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua. Horretarako, administrazioak aztertu beharko du onartu nahi den arauan aurreikusitakoak emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko edota horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean eragin positibo edo negatiborik izango ote duen.

Zentzu horretan, Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko, abuztuaren 21eko, 40/2012 Ebazpenak ezartzen du lege- edo arautegi-maila duten arau juridikoen proiektuek generoaren arabera eraginari buruzko txostenarekin batera joan behar dutela.

Aipatutako araudia kontuan hartuta, ondorengo orrialdeetan Elgoibarko osasun-zentro berrirako xehetasun-azterketaren generoaren arabera eraginaren txostena egin da.

Txostena 40/2012 Ebazpenaren I. eranskinean jasotako edukietan oinarrituz egituratu da (era berean, kontuan hartu da Emakundek, 2013. Urtean, argitaratutako "Generoaren Araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioa. Toki-erakundeetan ezartzeko prozesuaren eta ezarpenerako tresnen azalpen-gida").

### E.1.1 ARAU- ETA ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Duten interesa eta garrantziarengatik, gaiarekin lotura duten ondorengo lege edo planak azpimarratu behar dira:

#### E.1.1.1 Estatukoak

- Espainiako Konstituzioaren 9.2 eta 14. artikulua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoa.
- Emakumeen eta Gizonen Egiazko Berdintasunerako III. Plan Estrategikoa 2022-2025.

#### E.1.1.2 Erkidegokoak

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistatik Gabeko Pertsonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako zuzendariarena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitaratzeko xedatzen duena. Erabaki horren bidez, «Jarraibideak onartzen dira, generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzeko, bai eta desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko ere».
- EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia.
- Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroak aplikatzeko arauen 30. artikulua.

#### E.1.1.3 Foru-mailakoak

- 2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak, 19.1 artikuluan honakoa ezartzen du: *"EAEko botere publikoek aktiboki izan behar dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko helburua arauak garatu eta aplikatzerakoan, eta planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk, eta kontratuak, dirulaguntza-programak eta administrazio-egintzak garatu eta aplikatzerakoan"*.

Hala, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak ezartzen du genero-ikuspegia kontuan hartu beharko dela lurzorua erabileren antolamenduan:

*20. artikulua. Lurzorua erabiltzeko oinarrizko irizpideak.*

1. Atariko tituluan eta I. tituluan, hurrenez hurren, adierazitako printzipioak, eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko, herri-administrazioek, eta, bereziki, lurralde- eta hirigintza-antolamenduaren arloan eskumena dutenek, honako hauek bete beharko dituzte:

...

*c) Genero-ikuspegia kontuan hartuta, lurzorua erabileren antolamenduan printzipio hauek kontuan hartzea: irisgarritasun unibertsala, mugikortasuna, eraginkortasun energetikoa, ur-horniduraren bermea, arrisku naturalen eta istripu larrien prebentzioa, kutsaduraren aurkako prebentzioa eta babesa, eta horiek osasunean edo ingurumenean dituzten ondorioak mugatzea.*

Era berean, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) genero-ikuspegia lurraldearen antolamenduaren edo hirigintzaren eremua gaitzen duen baina lurralde- eta hirigintza-plangintzak bere edukian sartu beharreko zeharkako gaitzat hartzen dute. Eta, 30. artikuluan, genero-ikuspegiaren arloko zenbait jarraibide ezarri dira.

Generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko jarraibideak Gobernu Idazkaritzako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenean jasota daude. Jarraibide horiek generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeari buruzko jarraibideetan daude jasota, eta Jaurkitzaren Idazkaritzako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenean jasota daude.

## E.2 ARAU-PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

### Arau-proiektuaren izena

Elgoibarko (Gipuzkoa) osasun-zentro berrirako xehetasun-azterketa. «1.A.3 – Merkatua» azpieroemua.

### Sail eta zuzendaritza sustatzailea

Eusko Jaurlaritza, Osasun Saila, Azpiegituren Zuzendariordeztza.

### Proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten beste arauak, planak, etab.

- Estatuko hirigintza-legeria
  - 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hiri Birgaitzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
  - 8/2013 Legea, ekainaren 26koa, birgaitzeari eta hiri-berroneratze eta -berrikuntzari buruzkoa (indarrean dauden artikulak).
  - 1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa, Lurzoruari buruzko Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena.
- Hirigintzako legeria autonomikoa
  - 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
  - 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, Hirigintza-jardueraz sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoa.
  - 105/2008 Dekretua, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei).
  - 45/2025 Dekretua, hirigintzako estandarrak arautzekoa.
  - 46/2020 Dekretua, martxoaren 24koa, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen (EHAA, 63. zk., 2020/03/31).
- Estatuko ingurumen-legeria
  - 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa.
- Ingurumen-legeria autonomikoa
  - 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
  - 9/2021 Legea, azaroaren 25ekoa, Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzkoa.
  - 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- Beste legeria batzuk (ondarea, euskara, zarata...)
  - 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
  - 14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa.
  - 11/2023 Legea, azaroaren 9koa, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriarena.
  - 9/2014 Legea, maiatzaren 9koa, Orokorra Telekomunikazioei buruzkoa.
  - 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
  - 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzei buruzkoa.
  - 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa.
- Lurralde-plangintza
  - 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzkoa.
  - 86/2005 Dekretua, apirilaren 12koa, Debabarreneko Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala behin betiko onartzen duena.
- Udal-plangintza
  - Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPO). Behin betiko onespina: 2013/01/22 (GAO,

### **Arau-proiektuaren helburu orokorrak**

Osakidetzak osasun-zentro berri bat eraiki nahi du Elgoibarren (Gipuzkoa), egun dagoen zentroa ez baita nahikoa beharrei erantzuteko.

Hala, lortu nahi den eraikina eraiki ahal izateko, indarrean dagoen plangintzan jasotako forma-zehaztapen batzuk aldatu behar dira.

### **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak**

Xehetasu-azterketa honen helburuen artean, ez dira berariaz jaso gizonen eta emakumeen berdintasuna bermatzeko helburuak, lanaren mugaketagatik.

Hala ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea zeharka jasotako gaia da; izan ere, xehetasun-azterketaren bidez, egungo eraikinak behar bezala funtzionatzeko beharrei erantzun nahi zaie.

Horregatik guztiagatik, esan daiteke xehetasun azterketak ekarpen txikia egiten diola hirigintza inklusiboagoari, eta, horren ondorioz, zerbitzu hobea sortzen dela sor daitezkeen desberdintasunei aurre egiteko.

## E.3 GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Atal honetan, esku-hartu edo arautu nahi den testuinguru sozialean proiektatutako jarduerak izan dezaken eragin positibo nahiz kaltegarria aztertzen da, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ekiditeari eta berdintasuna sustatzeari dagokionez; eragin hori bilatu ez arren, edo berariaz adierazita edo aurreikusita egon ez arren.

Eraginaren azterketa ebaluatzeko 40/2012 Ebazpenean jasotako galdera sorta erantzuten da jarraian:

### **Aurreikusten al da arauak edo administrazio-egintzak emakumeei eta gizonei ekarriko dizkien onurek edo haien emaitzek lagundu egingo duela sektoreko desberdintasunak murrizten?**

Bizi-itxaropenari dagokionez, geoeuskadi bisoreko (2013-2017) azken datuen arabera, emakumeen bizi-itxaropena 87,19 urtekoa da, eta gizonena 80,15ekoa. Emakumeen heriotza-tasa 0,91 da, eta gizonena, berriz, 1.

Instalazioak hobetzeak eta zerbitzuak handitzeak arreta hobea ematea ekar dezake, eta desberdintasun hori murrizten lagundu.

Osasun-langileei dagokienez, emakumeak dira nagusi, batez ere erizaintzan.

### **Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak desberdintasunak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituela baliabideak eskuratzeari dagokionez?**

Xehetasun-azterketak ez dira, erabilerak formalki gauzatzeko parametroetatik eta aurreikusitako jarduketan kudeaketarekin lotutako alderdietatik harago bestelako gaiak planifikatzeko tresna, eta ez dute politika sektorialik arautzen.

Ildo horretan, xehetasun-azterketak desberdintasunak murriztu ahal izango ditu, errealitatearen euskarri fisikoa egokituz, baina ez ditu desagerraraziko; izan ere, horretarako, beste hainbeste gai planifikatu behar izaten dira, bai eta dagozkion politika sektorialak arautu eta garatu ere.

Irisgarritasuna da baliabideak eskuratzean eragin handiena duen gaietako bat, errealitate fisikoaren ikuspegitik. Beraz, eragin positiboa aurreikusten da; izan ere, aurreikusitako jarduketa berriei esker, barnealdean erabat irisgarria izango den osasun-zentro bat eraiki ahal izango da, ingurune irisgarri batean, eta bertara heltzea errazagoa izango da era multimodalean (oinez, ibilgailuz eta garraio publikotik (autobusa eta trenbidea) oinez 5 minutu baino gutxiagora).

EAEko Osasun Inkestaren (EAEOI) datuen arabera, urtean emakumeak gehiagotan joaten dira kontsulta medikoetara. Baina, gainera, modu desberdinean egiten dute hori gizonenarekin alderatuta; izan ere, emakumeen eta gizonen mugikortasun-ereduak desberdinak dira genero-arrazoiengatik, datu estatistikoek azaltzen duten bezala.

Argi dago zaintzaren mugikortasunak (eta, horren barruan, osasun-kontuen kudeaketari lotutako mugikortasunak) joan-etorrien ehuneko handiagoa dakarrela emakumeen kasuan.

Gainera, datuen arabera, emakumeek gutxiago erabiltzen dute ibilgailu pribatua beren joan-etorrietan, askoz ere gehiago mugitzen dira oinez, garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak dira, eta beren mugikortasuna gizonena baino multimodalagoa da, eta horrek desberdintasunak eragiten ditu joan-etorrien denborari eta kontziliaziorako zailtasunei dagokienez.

Informazioa eskuratzeari dagokionez, xehetasun-azterketa hau jendaurrean jarriko da. Beraz, ez da uste emakumeen eta gizonen artean desberdintasunik dagoenik informazio hori eskuratzeari dagokionez. Hala ere, genero-ikuspegia eta herritarren parte-hartzea zeharkako gaiak dira, eta gaur egun oraindik ere garatzen ari dira gizartearen hainbat arlotan.

### **Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izatea edo, behintzat, ordezkariak hori esparruan duten presentziaren maila berekoa izatea?**

Xehetasun-azterketaren erredaktore-taldeari dagokionez, guztira, 3 teknikariz osatuta dago: emakume 1 eta 2 gizon. Esan daiteke hirigintza-dokumentuaren erredaktore-taldean desberdintasuna dagoela, baina kontuan hartu beharra dago ogibidearen egungo egoera. Erreferentziatzat Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialeko (EHAEOko) Euskal Herriko Arkitekto Hirigileen Elkartearen (EHAHeren) datuak hartzen baditugu, 2023. urtean emakumeak elkarteko

profesionalen % 24,86 ziren. Kalkulua egiteko, EHAHEko kolaboratzaileak (% 2,82 emakumezkoak eta % 3,95 gizonzkoak) – ez dira titularrak, ez baitute eskakizunen bat betetzen – eta emerituak (% 10,73, guztiak gizonak) ez baditugu kontuan hartzen, ehunekoak % 26,71ra igotzen da. Ehuneko horietan, plangintza-tresnak idazten dituzten profesional liberalak ez ezik, administrazioaren zerbitzura lan egiten duten arkitektoak, hirigintza-aholkularitzako zerbitzuaren arduradunak eta abar ere sartzen dira, eta emakumeek Administrazioan duten presentzia (zuzendaritzakoak ez diren lanpostuetan) gizonena baino handiagoa da plangintza idazteko lanekin alderatuta.

Plangintza gehienbat gizonen marraztu izan dute da eta oraindik ere marrazten dute, hainbat arrazoiengatik: belaunaldi jakin batzuetan emakumeek karrera teknikoetara sartzeko zuten zailtasuna (iraganeko kontua, baina egun kontuan izan beharrekoa adineko belaunaldi horietako batzuk oraindik lanean baitaude); elkartzeko eta, hala, lizitazioetan eskatutako kaudimen teknikoak betetzeko zailtasuna (batez ere hasieran); kontziliaziorako zailtasunak (lan egiteko goizeko ordutegia administrazioarekin, eta arratsaldekoa herritarrekin parte hartzeko prozesuetarako; landa-lanaz eta lizitazioak prestatzeko ordaindu gabeko lan-orduez gain); joan-etorrietarako zailtasunak (beharrezkoa da bilerak, landa-lana eta partaidetza egiteko joatea; gainera, nahitaezkoa da ibilgailu pribatua erabiltzea kasu jakin batzuetarako, hala nola garraio publikoaren zerbitzua txarra edo txikia duten udalerririk txikiak hartzeko, edo ondareari, antolamenduei edo landa-lurzoruko beste kontu batzuei buruzko landa-lana egiteko); etengabe eguneratzeko beharrezko den ordaindu gabeko denbora (gai juridikoetan edo arau-gaietan, ebaluazio edo landu beharreko gai berrietan, programa informatikoetan, ziurtagiriak...); eta abar.

Testuinguru hori kontuan hartuta, emakume batek zuzendu ditu lanak, eta horrek hobetu egiten du erredaktore-taldearen barruan erabakiak hartzerakoan emakumeen eta gizonen ordezkari izateko dagoen ohiko desoreka.

Hala ere, aipatu beharra dago xehetasun azterketa batek ez duela ordezkari horietan aldaketarik egiteko irismenik.

### **Aurreikusten al da etorkizuneko arauan edo administrazio-ekintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumei eta gizonen egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gainditzeko edo aldatzeko?**

Emakumei edo gizonen egokitzen zaizkien gizarte-arauak edo balioak hiru arlotan eraikitzen dira: gizartean, familian eta hezkuntzan.

Xehetasun azterketek, beren izaeratik, ez dute arautzen hiru arlo horietako bakar bat ere. Hala ere, horiek garatzeko diren euskarri fisikoaren gauzatze formala antolatu eta arautzen dute.

Horregatik guztiatik, jasotzen diren aurreikuspenek eta zehaztapenek lagundu dezakete arau horiek gainditzeko edo aldatzeko, egoera berriei beharrezko euskarria emanez, garatu eta ikusarazi ahal izateko.

Antolamenduak osasun-erabilerari buruzko beharrak jorratzen ditu, eta horrek eremu horretako esperientziak baldintzatuko ditu.

### **Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?**

Txosten hau Aldaketak txosten honetan jasotako arau- eta erreferentzia-esparruko araudia betetzen duela bermatzen dator. Zentzu horretan, ondorengo atalean emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeko hainbat neurri jaso dira.

## E.4 EMAKUMEEN ERA GIZONEN ARTEKO DESBERDINTASUNAK EKIDITEKO ETA BERDINTASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK

Atal hau abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera garatu da. Ebazpen horren bidez, generoaren arabera eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna bultzatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dira.

Atal honetan, arau jasotako hobekuntza-neurriak aipatu behar dira, bai eta onartu ondoren ezartzea aurreikusten diren bestelako neurri batzuk ere, eragin negatiboa neutralizatzeko edo, hala badagokio, eragin positiboa indartzeko.

Jaso al da neurriak arau edo administrazio-egintzaren proiektuan...		Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta egin haien deskribapena.
... genero-ikuspegia txerta dadin sustatzeko? <i>Bai</i>	emakumeen eta gizonen egoerek erakusten dituzten aldeak ezagutza hobetzen da.	<i>Bai, txosten honen bidez, sexuaren arabera bereizitako datuak jasotzen baitira.</i>
	emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna jasotzen da printzipio moduan, helburu moduan edo adierazpen nahiz azalpen gisa.	<i>Ez.</i>
	hizkuntzaren erabilera ez-sexista egiten edo sustatzen da.	<i>Bai. Xehetasun Azterketa osatzen duten dokumentu guztietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egin da.</i>
	genero-gaiei buruzko prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen partaidetza sustatzen da.	<i>Bai. Generoaren arabera eraginari buruzko txostena genero berdintasunean espezialista den pertsona batek egin du.</i>
	eduki edo irizpide moduan jasotzen da berdintasuna (onartzeko, baloratzeko edo betetzeko), hautatze-prozesuetan, laguntzak eta hitzarmenak egiteko prozesuetan, prestakuntza-jardueretan, etab.	<i>Ez.</i>
	beste batzuk, zehazki: _____	-
... emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua sustatzeko? <i>Bai</i>	hautatze-epaimahaietan.	<i>Ez dagokio Xehetasun Azterketari, bere xedea eta izaera kontuan izanda.</i>
	sariak emateko epaimahaietan.	<i>Ez dagokio Xehetasun Azterketari, bere xedea eta izaera kontuan izanda.</i>
	kontsulta-organoetan.	<i>Ez dagokio Xehetasun Azterketari, bere xedea eta izaera kontuan izanda.</i>
	zuzendaritza-organoetan.	<i>Ez dagokio Xehetasun Azterketari, bere xedea eta izaera kontuan izanda.</i>
	beste batzuetan, zehazki: _____	<i>Xehetasun Azterketa izapidetzean partaidetza irekia izango da, emakume eta gizonezko orok izango duelarik parte-hartzeko aukera.</i>

... ekintza positiboak lantzeko? Ez	emakumeentzat..	Ez.
	gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko..	Ez.
	beste batzuk, zehazki: _____	-
... itxuraz neutroa dena baina generoaren arabera eragin onuragarria izan dezakeena? Bai	indarkeriaren biktimeentzat.	Ez.
	guraso bakarreko familientzat.	Ez.
	mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzat.	Bai. Xehetasun-azterketari esker, zentro berri bat eraikitze proiektua onartu ahal izango da, baldintza hobekiak izango dituena (irisgarritasuna, akustika, klimatizazioa, etab.), eta zerbitzu gehiago eskainiko dituena, modu multimodalean erraz iristea gain. Horrek hobekuntza dakar mendekotasuna duten pertsonak beren gain hartzen dituztenentzat, erosotasun handiagoa eta kontziliazio-zailtasun txikiagoak izango baitituzte).
	beste batzuentzat, zehazki: _____	Ez.
... askotariko diskriminazioa pairatzen duten emakumeen desberdintasun-egoerak murrizteko? Bai	adinaren arabera.	Ez.
	gizarte-mailaren arabera.	Ez.
	sexu-aukeraren arabera.	Ez.
	desgaitasunaren arabera.	Bai, ingurune irisgarri batean eraikin irisgarri bat ezartzea ahalbidetzen baita.
	etnia eta/edo arrazaren arabera.	Ez.
	nazio-jatorriaren arabera.	Ez.
	beste batzuen arabera, zehazki: _____	-
... debekuak edo zehapenak ezartzeko denik? Ez	sexuagatiko diskriminazioak egiteagatik.	Ez dagokio Xehetasun Azterketari, bere xedea eta izaera kontuan izanda.
	hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik.	Ez.
	beste arrazoi batzuentzat, zehazki: _____	-

Arau edo administrazio-egintzaren edukiaz gain, aurreikusten al da bestelako neurriak ...		Deskribapena
... berdintasunerako helburu eta neurrien eraginkortasuna osatu edo handitzeko? Bai	hedapena indartzeko ekintzak.	Partaidetza-prozesu bat aurreikusita dago. Eta xehetasun-azterketaren dokumentazio guztia aurrez aurre eta telematikoki egongo da eskuragarri, onartzen denean.
	jarraipena egiteko eta ebaluatze jarduerak.	Ez.
	estatistikak egitea eta azterlan espezifikoak egitea.	Ez.
	Informazio-, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzak.	Bai, dokumentu hau idatziz.

	<b>arauak, planak edo programak egokitzea edo prestatzea.</b>	<i>Bai, dokumentu hau idatziz.</i>
	<b>berdintasunerako planak egitea.</b>	<i>Ez.</i>
	<b>berdintasunerako planak egitea.</b>	<i>Ez.</i>
	<b>beste batzuk, zehazki: _____</b>	-

# **F. II. ERANSKINA. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA**

## F.1 JUSTIFICACIÓN DE INNECESARIDAD

Euskadiko Toki Erakundeek buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak honakoa ezartzen du 7. artikuluan, "Toki-erakundeek eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez", 7. atalean: "Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira."

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilerainstituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoazaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak honakoa ezartzen du:

**50. artikulua.**– Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.

1.– Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketek ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

a) Planak:

- Hiri-antolamenduko plan orokorrak.
- Plangintza orokorra bateragarri egiteko plana.
- Sektorizatze-plana.
- Plangintzako arau subsidiarioak.
- Plan partzialak.
- Hiri-antolamenduko plan bereziak.
- Turismo-planak...
- Hiri-antolamenduko plan bereziak

b) Proiektuak:

- Merkataritzagune handiak eraikitzeke proiektuak.
- Industriadunak eta teknologia-parkeak eraikitzeke proiektuak.

2.– Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnaguneetako euskararen erabileran eragina izandekaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.

Xehetasun-azterketak ez dira planak edo proiektuak, baizik eta "Hirigintza antolatzeke gainerakotresnak", Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezartzen duen bezala 59. artikuluan (Plan-motak) eta 60. Artikuluan (Hirigintza antolatzeke gainerako tresnak eta tresna osagarriak). Beraz, ez da beharrezkoa ebaluazioa egitea. Gainera, 179/2019 Dekretuaren 51. artikuluan ebaluaziotik salbuetsitako kasuetako bat da:

**51. artikulua.**– Ebaluaziotik salbuetsitako kasuak

1.– Kasu hauetan ez da egin behar hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa:

a) Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.

b) Hizkuntza-inpakturik eragiten ez duten planak onartzean eta proiektuei baimena edo gaikuntza ematean.

c) Aurrez hizkuntza-ebaluazioa izan duen plan batetik eratorritako proiektuetan.

2.– Aurreko apartatuan adierazitako kasuetako plan eta proiektuei onarpena, baimena edo gaikuntza emateko funtsezko espedientean, egoera horren berri jasotzen duen txosten bat erantsi beharko da.

Xehetasun-azterketak, beren izaeragatik, aurrez azaldu den bezala, zehaztapen xehatuak **egokitzeko** soilik "plangintzako beste tresna batzuk" dira.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73. artikuluan arabera:

**73. artikulua.**– Xehetasun-azterketak.

1.– Antolamendu xehatuaren zehaztapenak edozein lurzoru-motatan osatzeko edo egokitzeko dira xehetasun-azterketak...

Beraz, honakoa 179/2019 Dekretuaren 51.1.a) artikuluan jasotako kasua izango litzateke. Hori guztiagatik, ez da beharrezkoa Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egitea. Nolanahi ere, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeko indarrean dagoen araudian ezarritakoa aintzat hartuko da, eta horretarako egokitzat jotzen diren neurriak ezarriko dira.

# **G. III ERANSKINA. HERRITARREN PARTAIDETZA**

## G.1 LEGE-ESPARRUA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8. artikulua, "Herritarren parte-hartzearen printzipioa" deritzona, honakoa ezartzen du:

1.– *Hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onartu eta egikaritzekoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztia eskainiko da pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen parte-hartzea bermatu beharko da.*

2.– *Parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartza berarekin:*

a) *Plangintza izapidetzeko eta egikaritzeko prozeduretan eta hirigintzako diziplinari dagozkion prozeduretan interesatu gisa agertzeko eskubidea, horretarako legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.*

b) *Herri-administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri-administrazioak erabakitako eran eta legetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.*

c) *Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio-bidean nola auzi-bidean, herri-administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.*

Ondorioetarako, 98. artikulua ("xehetasun-azterketak izapidetzea eta onartzea") bigarren puntuan zehazten du:

2.– *Hasierako onespina eman ondoren, jendaurrean jarriko dira 20 egunez, dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaraturik, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.*

Hala ere, lege horren 108. artikulua, Herritarren Partaidetzarako Programa aipatzen duenak, Plan Orokor baten esparruan egiten du. Horregatik, eta xehetasun-azterketa honen izaera eta irismena kontuan hartuta, ez da inolako partaidetza-programarik egin, eta parte hartzeko mekanismoak indarrean dagoen araudian eta legerian jasotakoak dira.

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuak ere ez du aurreikusten ere xehetasun-azterketetarako partaidetza-programaren beharra.

Dokumentua jendaurrean jartzeari dagokionez, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 25. artikuluan ("Publizitatea eta eraginkortasuna hirigintzaren kudeaketa publikoan") honako hau ezartzen du:

1. *Lurralde-antolamenduko eta hirigintza-antolamendu eta -exekuzioko tresna guztiek, onurak eta kargak banatzeko direnak barne, eta administrazio eskudunak izenpetuko dituen xede hitzarmenek, horrekin informazio publikoaren izapidea jarraitu behar dute gai horretako legeriak ezartzen duen eran eta epean, zeina inoiz ezin izango baita administrazio-prozedura erkideari buruzko legerian galdatzen den gutxienezko baina laburragoa, eta legeek zehazten duten forman eta edukiarekin argitaratu beharko dira.*

2. *Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresna guztien behin betiko onspen-erabakiak dagokion aldizkari ofizialean argitaratuko dira. Tresna horietan biltzen diren arau eta ordenantzei dagokienez, aplikagarri den legeriak aginduko du.*

(...)

4. *Administrazio publiko eskudunek bide telematikoa bultzatuko dute indarrean dauden lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnen edukia eta haien informazio publikoa ematen delako iragarpena publiko egiteko.*

## G.2 LABURPEN EXEKUTIBOA

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluan eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 25. artikuluan zehaztutakoa dela-eta idatzi da egikaritze-laburpena:

**32. artikulua**– *Jendaurrean jartzeko izapiderako gutxieneko dokumentazioa.*

*Planak eta hirigintza-antolamendurako gainerako tresnak onartzeko edo aldatzeko prozeduretan, plan eta tresna horiek bilduko dituen dokumentazioa aurkezteaz gain, honako alderdi hauek adieraziko dituen laburpen exekutiboa jarri beharko da jendaurrean:*

- a. *Zenbait eremutan proiektatutako antolamenduak indarrean dagoen antolamendua aldatzen duenean, eremu horien mugaketa, kokapenaren planoarekin eta aldakuntzaren zenbaterainokoarekin. Egungo egoera eta antolamenduak aurreikusitako etorkizuneko irudia konparatzeko aukera emango duten informazio grafikoko planoak edo tresnak txertatuko dira.*

**Artículo 25.** *Publicidad y eficacia en la gestión pública urbanística.*

...

3. *Hirigintza-antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko prozeduretan, jendaurrean jarritako dokumentazioak honako hauek adierazten dituen laburpen exekutiboa ekarri beharko du:*

- a. *Proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoena zein eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketa horren norainokoa adieraziz.*

Horrela, laburpen exekutiboak indarrean dagoen hirigintza-antolamenduan sartu nahi diren aldaketak islatzea du helburu.

Xehetasun-azterketa honek planteatzen dituen aldaketa honako hauek dira:

- 60 cm-ko atzerapena ezarri da eraikin mugakideekiko.
- Sarbide-sestra zehaztu da (+43,45 m).
- Solairuetako altuerak aldatu egiten dira, eta gehieneko altuera San Frantzisko kaletik neurtzen da. Horren sestra, tofografikoaren arabera, +41,00 m-koa da.
- Teilatu-hegalak altueran Altzola dorrearen teilatu-hegala bera gainditu ahal izango du.
- Estalkia lau isurikoa izango da, eta ez bi isurikoa.
- Hegala aldatu egin da: hegalkina gehienez 0,60 m-koa Alde Zaharreko kaleetarantz, eta 1 m-koa Deba ibairantz eta plazetarantz izatetik 1 m-koa iparralde, mendebalde eta hegoaldeko isurialdeetan, eta 0,60 m-koa ekialdeko isurialdean izatera pasa da.
- Estalkiaren gainetik igogailuaren kasetoia eraiki ahal izango da (baina ezingo du erremate-sestra gainditu).
- Fatxadan saretak onartuko dira, eguzkitako babes-elementu gisa.
- Balkoiez gain, babes-elementuei dagozkien hegalkinak (sareta parasola) baimentzen dira fatxada guztietan, gehienez 0,50 m-ko irtengunea dutela iparraldeko eta hegoaldeko fatxadetatik, eta 0,80 m-koa mendebaldeko fatxadatik; eta gutxienez 2,50 m-ko altueran.
- Eraikin berriak estankoak diren bi solairu izan ditzake H500 uholde-sestraren azpitik.
- Igogailu publikoen diseinua material gardenekin egingo da (beira edo antzekoak), kabinaren barrualdea eta kanpoaldea ondo ikusten direla bermatzeko behar den proportzioan eta tokian, gizalegearen aurkako portaerak edo delituak burutzeko asmoak uxatzeko eta erabiltzaileen segurtasun-sentsazioa areagotzeko.
- Eta instalazioetako ekipoek H50 uholde-sestraren gainetik izango dituzte aireztapenak.

Dokumentu honen dokumentazio grafikoan plano konparatibo bat egin da (RE.01 Egikaritze-laburpena), egungo antolamendua eta Xehetasun Azterketa honetan jasotakoaren arabera aurreikusitakoa alderatzeko, aldaketen irismena islatuta.




# **H. DOCUMENTAZIO GRAFIKOA**

# H.1 AURKIBIDEA

<b>Informazio-planoak</b>
I.01 KOKAPENA
I.02 INDARREAN DAGOEN PLANGINTZA
I.03 EGUNGO EGOERA. KOKALEKUA
I.04 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. ERDI-SOTOKO ETA SOTOKO SOLAIRUAK
I.05 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. BEHE ETA LEHEN SOLAIRUAK
I.06 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. BIGARREN ETA HIRUGARREN SOLAIRUAK
I.07 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. ALTXAERAK.
I.08 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. ALTXAERAK.
I.09 AURREIKUSITAKO ESKUHARTZEA. SEKZIOAK.
<b>Antolamendu-planoak</b>
O.01 EREMUAREN MUGAKETA
O.02 DEFINIZIO GEOMETRIKOA
O.03 GEHIENKO INGURATZAILEA
<b>Egikaritze-laburpena</b>
RE.01 EGIKARITZE-LABURPENA

Elgoibarren, 2025eko urrian.



Paula Amuchastegui Moreno  
Arkitekto hirigilea  
COAVN: 4689



Jesús Luis Sola Jiménez  
Abokatu hirigilea eta geografoa  
MICAP: 2471

16021616T Firmado  
JESUS LUIS digitalmente por  
SOLA (R: 16021616T JESUS  
B31725906) LUIS SOLA (R:  
Fecha: 2026.01.23  
13:27:53 +01'00'